

**NAVCOMTEL-EN INKESTA.** UPNk irabaziko lituzke, eta Aralarrek eserleku bat lortuko luke

# Bozak orain eginen balira, Batasunak ordezkaritza mantenduko luke Nafarroan

Inkestaren %48 ilegalizazioaren eta Alderdien Legearen alde daude

Irene Arrizurieta | IRUÑA

Nafarroako Parlamentuak nafarren boto asmoa jasotzen duen inkestaren berri eman zuen atzo. Emaizen arabera, eta hauteskundeak orain egingo balira, berriro ere UPNk irabaziko lituzke. Erregionalistek botoen %24,81 jasoko lukete, PSNk %13,5, Batasunak %8,06, IUN-NEBk %4,75, CDNk %3,56, EA-EAJk %3,13, Aralarrek %2, eta Batzarrek %0,62.

Inkestak emandako emaitzaren arabera, UPNk 22-23 eserleku lortuko lituzke Nafarroako Parlamentuan. PSNk 12-11 eskuratu lituzke, Batasunak 6-7, IUN-NEBk 3-4, CDNk 2-3, EA-EAJk bi, Aralarrek bat, eta

Batzarrek ez luke jarlekurik izango. Egun, erregionalistek 22 dituzte, sozialistek 11, Batasunak 7, EA-EAJ, IUN eta CNDk hiruna, eta Batzarrek bat. Dena dela, kontuan hartu behar da itaundutakoen %32k ez dutela erantzunik eman.


Batasuna legez kanpo gertatzen bada, taldearen boto emaleek nori emanen lioketen ez da zehazten, %80k ez dutelako erantzun. Beste %13k IUN-NEBri emanen liokete botoa, %1ek EA-EAJri eta inork ez Aralar eta Batzarri. Batasunaren ilegalizazioaz eta Alderdien Legeaz galdetuta, itaundutakoen %48,8 alde daude, eta %30,8 aurka, eta %20,4k ez dute erantzun. Inkestak beste erantzun

batzuk ere bildu ditu. Politikariek ez dute herritarren oniritzia jaso. Juan Cruz Alli da hobekien baloratua, ondoren, Felix Taberna, eta okerren baloratua Fernando Barrena.

Nortasunaz galdetzean, erdiek erantzun dute nafar eta espainiarrak direla, eta %19,1ek nafar eta euskal herritarrak. Beste %11,6k bakarrik nafarrak direla diote, eta beste %10,2k nafarrak, euskal herritarrak eta espainiarrak direla. Euskararen egoera txarra dela erantzun dute %36,2k, erdipurdikoa %20k, eta ona dela %21ek.

Inkesta Navcomtel enpresak egin zien 1.600 laguni, urriaren 21tik 27 arteko astean. Konfiantza maila %95,5ekoa da.

## Inkestaren emaitza



## NORTASUNA

Galdetuen %50ek nafarrak eta espainiarrak direla diote; %19,1ek nafarrak eta euskal herritarrak

## EUSKARA

Galdetutakoen %36,2k euskararen egoera txarra dela diote, eta beste %20,1ek erdipurdikoa

## LABURAEAN

### Cuerdak berretsi du PP eta PSOEn zerrendetan egoteko prest dagoela

EAJko kide eta Gasteizko alkate ohi Jose Angel Cuerdak berretsi egin du PPren eta PSOEn zerrendetara aurkezteko prest dagoela, baldin eta bi alderdiok hauteskunde zerrendak osatzeko arazoak badituzte. «Sufritzen» duten alderdi guztiekin egoteko «konpromiso pertsonala» duela adierazi zuen Cuerdak. Haatik, datozen hauteskundeetan aurkezteko beharrik ez izatea eta alderdi guztiek beren proiektuak defendatzeko aukera izatea espero du Cuerdak.

### Oso jarrera errepresiboa izanez ezagun egindako poliziakide bat Euskal Herriatik urrun igorri dute

Baionako poliziakide bat Euskal Herriatik urrun igorriko dute. Georges Haget ez da oso gradu handikoa barne hierarkian, baina mugimendu abertzaleak oso ongi ezagutzen du, bere jarrera errepresiboa dela eta. Abertzaleek Dartagnan izengoitia eman diote. Poliziarekin istiluak gertatu diren elkarretaratze ugarian, bera han zegoen; Demoen auzian ere bai. Bihar Segiko kide bati epaia emanen diote, «Polizia iraintzen duen» kamiseta bat soinean zuelako. Hagetek atxilotu zuen kalean, eta haren izenean salaketa jarri.

### Donostian 41 telefono kabina, bederatzi postontzi eta lau kutxa hondatu dituzte

Joan den asteburuan 41 telefono kabina, bederatzi postontzi eta lau kutxa automatiko «blokeatu» dituzte Donostian, txotxak eta lekeda baliatuz, anonimo baten bidez EGUNKARIARI jakinarazi diotenez. «Telefonicaren, Correosen eta Frantziako eta Espainiako banketxeen aurkako ekintzak, Euskal Herria jasaten ari den eraso faxista» salatzeko egin zituzten.

### Urrutikoetxeak gaur du hitzordua Espainiako Auzitegi Gorenean

Josu Urrutikoetxea Sozialista Abertzaleak taldeko legebiltzarkideak hitzordua du gaur Espainiako Auzitegi Gorenean. Aurrekoan agertu ez zenez, epaileak hura atxilotzeko agindua eman zuen. Gaur agertzen ez bada, nazioarteko atxilotze agindua emango du Espainiak.

**NAFARROAKO AURREKONTUAK.** Zuzenketa osoak edo partzialak egiteko epea zabaldu da Legebiltzarrean

## «Erantzukizunez» jokatzeko eta 2003ko aurrekontu proiektua onartzeko eskatu die Iribarrenek oposizioko taldeei

Irene Arrizurieta | IRUÑA

Francisco Iribarren Nafarroako Ekonomia kontseilariak Jose Luis Castejon Parlamentuko lehendakariari eskura eman zion atzo UPNk eta CDNk hitzartu duten 2003. urteko aurrekontu proiektua. Orain zuzenketa egiteko epea zabaldu du Legebiltzarrek, eta proiektua onartu ala ez abenduaren 27ko osoko bilkuran erabakiko da.

Iribarrenek proiektua «ona» dela baina «hobetu daitekeela» esan zuen, atzo, Legebiltzarrean. Proiektuak ganberako 50 botoetatik erdiak bakarrik ditu, UPNk eta CDNk batzen dituztenak alegia. Hori dela eta, beste alderdiei «erantzukizunez jokatzeko» eskatu zien. Heldu den urtea «zaila» izanen dela esan zuen, hauteskundeak eginen direlako. Beraz, Nafarroak aurrekontuak behar dituela berretsi zuen, eta ez 2001ko kontuen beste luzapan bat.

Tramitazioari dagokionez, Parlamentuko Bozeramaileen Mahaiak eta Batzordeak tramitara onartu zuten atzo 2003ko aurrekontu proiektua. Hilaren 20an Ekonomia Batzordeak aztertuko du. Orduan, osoko zu-



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Francisco Iribarren, Nafarroako aurrekontu proiektua Jose Luis Castejoni emateko unean.

zenketak edo partzialak aurkezteko epea zabalduko da, eta azaroaren 28a arte iraunen du.

Ohikoa den moduan, osoko zuzenketa eztabaidatuko dira aurren. Hori, abenduaren

10ean eginen den osoko bilkurak eginen da. Proiektuak aurrera jarraitzen badu, zuzenketa partzialak eztabaidatuko dira abenduaren 11n eta 20an eginen diren osoko bilkuretan.

Behin betiko proiektua onartu edo atzera botatzeko Nafarroako Legebiltzarreko bilkura nagusia abenduaren 27an hasiko da, eta hurrengo egunera luza daiteke.